



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 69/2025 FORU DEKRETUA, ekainaren 26koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan orkatzek eta basurdeek eragindako kalteak direla-eta lehen sektoreari laguntzeko zuzeneko dirulaguntzak ezartzen dira.

Erakunde onuradunak	Erregistro hauetan inskribatutako nekazaritza-ustiategien titularrak (pertsona fisikoak eta juridikoak): Nekazaritzako Ustiategien Erregistroa, Landare-Operadore Profesionalen Erregistroa, Bizkaiko Foru Aldundiko Mahastizaintza Erregistroa eta Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroa (REGA); halaber, baso-ustiategien titularrak ere onuradun izan daitezke.
Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak	Orkatzek eta basurdeek eragindako kalteak
Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa	Foru-dekretuaren baremoaren arabera
Laguntza emateko araubidea	Zuzena

Orkatza zerbido txiki bat da, eta Bizkaiko Lurralde Historiko osoan dago. Elikadurari dagokionez, haren dietaren ardatza belarrak eta zuhaixka- eta zuhaitz-espezieen kimuak dira.

Basurdea, berriz, ugaztun artiodaktilo ertaina da, eta baso-eremuetan du aterpe. Espezie orojalea da, eta frutak, haziak eta larreak jaten ditu, baita ornogabeak, anfibioak eta mikrougaztunak ere. Horrez gain, etxeko animalien eta basoko animalien sarraskia jan ohi du.

Espezie horiek ingurunean duten jasate-ahalmena gainditzen denean, kalteak sortzen dira nekazaritza- eta basogintza-ingurunean, eta, beraz, bidezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak eragindako jabeentzako konpentsazio ekonomikoak arautzea, eragindako kaltea arintze aldera.

Urriaren 16ko 216/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzen du, non orkatza eta basurdea ehiza larriko espezie gisa agertzen diren.

Bizkaiko Foru Aldundiak urtero onesten dituen foru-aginduetan, orkatzen ehiza arautzeko, kupoak eta sexuak jasotzen dira, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak urtero egiten duen azterketa zinegetikoan eta zainpeko ehiza-eremuetako eta ehiza-barrutietako ehiza antolatzeke plan teknikoetan oinarrituta.

Basurdearen kasuan, ehizaren plangintza uxaldien bidez egiten da; Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailean izena emandako kuadrillek parte hartzen dute horietan. Espezie horren beste erauzketa batzuk harrapaketa selektiboaren bidez egiten dira. Horretarako, kaiolak erabiltzen dira, eta, neurri txikiagoan, zelata-ehiza eta gaueko kontrol selektiboak.

Hala eta guztiz ere, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak ehiza-espezie horien gainean egiten dituen populazio-kontrolak gorabehera, animalia basatiak dira, eta kalteak eragiten dituzte nekazaritzako ustiategietan eta baso-sailetan.

Horregatik, beharrezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiak, batetik, ukitutako pertsonen jaso beharreko laguntzak arautzea eta, bestetik, haiek jasotzeko prozedura eta baldintzak ezartzea.

Laguntza horiek Europako Batzordearen abenduaren 10eko 2024/3118 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren esparruan planteatzen dira (erregelamendu horrek 1408/2013 (EB) Erregelamendua aldatzen du, Europar Batasunaren Funtzionamenduari



buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa). 2024/3118 (EB) Erregelamenduak mugatu egiten du Estatuak ustiategi bakoitzeko emandako laguntzen zenbateko osoa: 50.000 euro, aurreko hiru urteko epealdian.

Foru-dekretu honen bidez, lehen sektorea babesteko zuzeneko laguntzak antolatzen dira, haien egoera larria ahal den neurrian arintzeko eta ondasun publikoen hornitzaile gisa duten garrantzia kontuan hartuta, hala nola, elikagaien segurtasun nazionala, lurraldean biztanleria finkatzea, lurraldearen zati desberdinen arteko berrorka edo guztiontzako bizi-aukeren eskaintza.

Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundearen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundearen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru-organismoek eskumen eskusiboa dute nekazaritza- eta baso-lurren kontserbazioan eta hobekuntzan.

Otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan eta haren egitura organikoa onartzen duen maiatzaren 31ko 79/2022 Foru Dekretuan (bereziki 1. eta 47. artikuluetan) ezarritakoaren arabera, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak esleituta ditu ordenamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari nekazaritza- eta baso-lurrak kontserbatu eta hobetzeko ematen dizkion eskumenak.

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko irailaren 1eko 39/2015 Legea, eta 3. artikuluan jasotzen baititu Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duenak.

Orobat, Foru-Dekretu hau egitean eta izapidetzean, Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak bete dira: generoaren araberrako eraginaren aurretiko ebaluazioari buruzko txostena, kontrol ekonomikoarena eta dagozkion txosten juridikoak eman dira.

Halaber, Foru-Dekretu honek genero-ikuspegia txertatzen du, hura eratzean zein aplikatzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testuategina onartzen duen eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan adierazten den bezala. Gainera, kontuan hartu da azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuan xedatutakoa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioa; martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan aurreikusita dago aurretiazko ebaluazio hori.

Era berean, Foru-Dekretu hau egiteko orduan, kontuan hartu da maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 8. eta 21. artikuluetan eta haiekin bat datozenetan xedatutakoa betetz, Foru-Dekretu honen helburua da deialdi honen ondoriozko konpromiso guztiei aurre egiteko diru-izendapen espezifikoak eta nahikoa egitea aurrekontuetan.

Xedapena onesteko organismoak duen eskumena Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari dagokio, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4. eta 17.2. artikuluen arabera.

Horri jarraituz, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak erabaki eta gero, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. — Dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartzea

Bizkaiko Lurralde Historikoan orkatzek (*Capreolus capreolus*) eta basurdeek (*Sus scrofa*) eragindako kalteak direla-eta lehen sektoreari zuzeneko laguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzen dira.



AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Arauen garapena*

Baimena ematen zaio Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatuari, Foru-Dekretu honetan ezarritakoa garatu, betearazi eta ezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak eman ditzan, dagozkion dirulaguntzak ematea barne.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrean jartzea*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.
Bilbon, 2025eko ekainaren 26an.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza
Sustatzeko foru diputatua,
ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

**ORKATZEK (CAPREOLUS CAPREOLUS) ETA BASURDEEK (SUS SCROFA) ERAGINDAKO
KALTEEN ZIOZKO ZUZENeko LAGUNTZAK EZARTZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK
ETA 2025ERAKO DEIALDIA EGITEA****AURKIBIDEA****I. kapitulua. — *Xedapen orokorrak***

1. oinarria. — Xedea.
2. oinarria. — Onuradunak. Betekizunak.
3. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea.
4. oinarria. — Laguntza-lerroak.
5. oinarria. — Elkarreragingarritasuna.
6. oinarria. — Datu pertsonalen babesa.
7. oinarria. — Araudi aplikagarria.

II. kapitulua. — *Xedapen espezifikoak*

8. oinarria. — Dirulaguntzak emateko prozedura.
9. oinarria. — Ebazpena. Prozedura izapidetzeko organo eskuduna.
10. oinarria. — Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.
11. oinarria. — Erakunde onuradunen betebeharrak.
12. oinarria. — Laguntzen justifikazioa.
13. oinarria. — Dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea eta ordainketa.
14. oinarria. — Borondatezko itzulketa.
15. oinarria. — Ez-betetzeak eta itzulketak.
16. oinarria. — Zehapen-araubidea.
17. oinarria. — Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa.
18. oinarria. — Emandako dirulaguntzen publikotasuna.

III. kapitulua. — *Deialdia*

19. oinarria. — Kaltea jakinaraztea.
20. oinarria. — Deialdiaren izapidetzea.
21. oinarria. — Aurrekontuaren diru-izendapena.



I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. oinarria. — Xedea**

Laguntza hauen xedea lehen sektoreari laguntzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoan orkatzek (*Capreolus capreolus*) eta basurdeek (*Sus scrofa*) eragindako kalteak arintzeko.

2. oinarria. — Onuradunak. Betekizunak

Foru-dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradun izango dira erregistro hauetan inskribatutako titularrak (pertsone fisikoak eta juridikoak): Nekazaritzako Ustiatuegi Erregistroa eta, hala badagokio, Landare-Operadore Profesionalen Erregistroa, Bizkaiko Foru Aldundiko Mahastizaintza Erregistroa eta Abeltzaintzako Ustiatuegi Erregistroa (REGA); halaber, basoberritzeko baimena duten baso-sailen titularrak ere onuradun izan daitezke, baldin eta laguntza-lerro bakoitzean zehaztutako betekizunak betetzen badituzte eta Foru-Dekretu honetan ezarritako sistemaren barruan kalteak jakinarazi badituzte.

Dekretu honetan aurreikusitako edozein laguntzaren onuradun guztiek betekizun hauek bete beharko dituzte:

1. Nekazaritza- edo baso-sailen kalteak izan direla jakinarazi izana, Foru-Dekretu honen 19. oinarrian jasotako sistemaren arabera.
2. Nekazaritzako edo basogintzako edozein laguntza ematean hartutako konpromisoak betetzea edo bete izana.
3. Zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, hala bada-gokio.
4. Landare-osasunari, erregistro ofizialei eta nekazaritza-ustiatuegi erregistroari buruz indarrean dauden arauak (abenduaren 27koa 1054/2022 Errege Dekretua eta geroagoko aldaketak), animalien osasunaren eta ongizatearen arlokoak eta kasu kasuko jarduerari dagozkion erregistroen arloko arauak betetzea. Laboreak baldintza agronomiko onetan mantendu behar dira, eta kaltetutako baso-sailak basoberritzeko baimena izan beharko dute.
5. Bizkaiko Foru Aldundiak emandako izaera bereko konpentsazio edo kalte-ordain esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta ez egotea.

Kasu horretan, onuradunei konpentsazio horiek emateko eta ordaintzeko, itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak amaituta egon beharko dira.

Pertsone fisiko eta juridikoek ezin izango dute inolako laguntza edo dirulaguntzarik eskatu eta jaso, baldin eta egoera hauetakoren batean badaude:

- a) Azken 5 urteetan hutsegite larri edo oso larriengatik administrazio-bidean zehapen irmoa jasotzea, martxoaren 20ko 3/2007 Foru Arauak eta apirilaren 13ko 2/2022 Foru Arauak aldatutako Bizkaiko Mendiei eta Naturagune Babestuen Administrazioari buruzko 3/1994 Foru Arauaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.
- b) Azken bost urteetan, animalien eta landareen osasunaren arloan eta animalien ongizatearen arloan arau-hauste larriak edo oso larriak egiteagatik administrazio-bideko zehapen irmoa jasotzea.
- c) Zehapen irmoa jasotzea — administrazio-, lan- zein zigor-arloan — berdintasunerako eskubidea nahiz sexuagatiko diskriminaziorik ezerako eskubidea urratzeagatik.
- d) Emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren xedeak edo helburuak, onarpen- nahiz sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak edukitzea.
- e) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko martxoaren 3ko 41/2022 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru-arau honetan ezarritako betebeharra ez betetzea.

**3. oinarria. — Diruz lagundu daitekeen egitatea**

1. Diruz lagunduko dira orkatzek (*Capreolus capreolus*) eta basurdeek (*Sus scrofa*) eragindako kalteak, baldin eta jarraian deskribatzen diren laguntza-modalitateetako batean sartzen badira, eta, betiere, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

- a) 2023ko abuztuaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra gertatzea.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea eta kaltea Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzea.
- c) Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinaraztea, Foru-Dekretu honen 19. oinarrian ezarritakoaren arabera.
- d) Kaltearen zenbatekoa 250 euro-tik gorakoa izatea.

2. Bi laguntza-lerro ezartzen dira: orkatzek eragindako kalteengatiko dirulaguntzetarako eta basurdeek eragindako kalteengatiko dirulaguntzetarako.

Dirulaguntza muga bakarra ezartzen da orkatzak eta basurdeak eragindako kalteetarako. Eragindako kalteen zozko dirulaguntzen zenbatekoa, guztira, 342.000 euro da.

4. oinarria. — Laguntza-lerroak**1. Lerroa: Orkatzek eragindako kalteen ziozko dirulaguntzak****1.a) Orkatzek baso-sailetan eragindako kalteen ziozko dirulaguntzak**

Laguntzaren xede izango dira orkatzaren basa-populazioek baso-sailetan eragindako kalteak.

1. Laguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak hauek izango dira:
 - a) Landareetan eragindako kalteak landarea hiltzea eragin behar du, edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna merkataritzarako bideraezina edo ez-komertzial bihurtu.
 - b) Eragindako baso-masaren azalera 0,25 hektareatik gorakoa izango da, eta basoberritzea sastrakarik gabe egongo da. Baso-berritze horren gainean egingo dira dagozkion eta behar bezala mantentzeko lanak, hala nola garbiketa, belar-sastrakak garbitzea, soiltzea, etab.
 - c) Laguntza jaso ahal izateko, kaltea jasan duten landareak gutxienez %10 izan behar da hektarea bakoitzeko.
 - d) Kaltea gertatu den lursailek basoaren kudeaketa jasangarriko plan bat izan behar dute.

2. Laguntzak jaso ahal izateko, baso-sailen titularrek Foru-Dekretu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, baso-jabetza erabiltzeko eta gozatzeko esku-bideen jabe edo titular diren aldetik, edo landaketa egiteko beren jabeekin hitzarmenak hitzartuta dituzten aldetik.

Onuradun izan daitezkeen titulartasuna egiaztatzeko, Baso Zerbitzuan dirulaguntzak kudeatzeko, basoberritzeak baimentzeko eskaera egiteko edo baso-eremuko beste izapide batzuetarako dauden datuak hartuko dira kontuan.

3. Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

- a) Laguntzaren zenbatekoa I. eranskinean ezarritako baremoen %100ekoa izan daiteke, gehienez, sailean kalteturik suertatu diren zuhaitzen arabera.
Sail berean metatutako kalteen kasuan, zuhaitz berberak ezin izango dute laguntzarik jaso behin baino gehiagotan.
- b) Gehienez, hektarea bakoitzeko 6.000 euroko laguntza emango da lau baso-espezie-taldeentzat.
- c) Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren %20 kenduko zaio.



Prebentzio-neurritzat hartuko dira:

- Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.
- Banakako babes-elementuak erabiltzea (Tubex edo antzekoak).

1.b) Orkatzek labore zurkaretan eragindako kalteengatiko dirulaguntzak

Diruz lagunduko dira orkatzaren basa-populazioek fruta-arboletan, fruitu txikiak ematen dituzten landareetan eta mintegietan eragindako kalteak, bai eta horiek eragiten duten ekoizpen-galera ere.

1. Dirulaguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan inskribatuta dauden nekazaritzako ustiategiak.

Sailak erregularrak eta homogeenak izango dira, eta ez da lerrokadura sinplerik edo oin isolaturik onartuko.

Mintegiak badira, beharrezkoa da Landareen Operadore Profesionalen Erregistroan inskribatuta egotea.

- b) Laguntza jasotzeko eskubidea duen lurzati kaltetuaren gutxieneko neurria (0,5 ha) ez da aplikatuko mintegietan.

- c) Labore zurkaretan sortutako kalteak, igurzkiengatik eta kimuak jan izanagatik.

Kaltea 5 urtetik beherako landareetan sortutakoa izango da, eta landarea hiltzea eragin behar du edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna bideraezin bihurtu. Adinaren irizpidea betetzetik salbuetsita daude fruitu txikiak ematen dituzten espezieen landareak.

2 Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

- a) Laguntzaren zenbatekoa, gehienez, IV. eranskinean ezarritako baremoen %100 izan daiteke, kaltea jasan duten landareen arabera, eta VI. Eranskinean ezarritako baremoen %100 gehienez, mintegietan eragindako kalteetarako.

Sail berean metatutako kalteen kasuan, zuhaitz berberak ezin izango dute laguntzarik jaso urte natural bakoitzean behin baino gehiagotan.

- b) Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 euro/ha izango da, eta, gehienez ere, 2.000 euro/ha haziak dituzten fruta-arbolentzat, eta 6.000 euro/ha fruitu txikiak ematen dituzten landareentzat.

- c) Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren %20 kenduko zaio.

Prebentzio-neurritzat hartuko dira:

- Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.
- Banakako babes-elementuak erabiltzea (Tubex edo antzekoak).

1.c) Orkatzek txakolina egiteko mahatsa ekoizteko mahastietan eragindako kalteengatiko dirulaguntzak.

1. Dirulaguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Mahastizaintza Erregistroan inskribatuta egotea.

- b) Laguntza jasoko duen mahastizaintza-ustiategiaren gutxieneko neurria 1,0 ha izango da.

- c) Igurzkiek mahastietan eragindako kalteak:

Kaltea 10 urtetik beherako landareetan sortutakoa izango da, eta landarea hiltzea eragin behar du edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna bideraezin bihurtu.

- d) Kimuak jan izanak eragindako kalteak.

Uztaren kalteen epea martxoaren 1etik ekainaren 30era bitartekoa izango da.



2. Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

- a) Laguntzaren zenbatekoa, gehienez, IV. eranskinean ezarritako baremoen %100 izan daiteke, kaltea jasan duten landareen arabera.
Sail berean metatutako kalteen kasuan, mahatsondo berberak ezin izango dute laguntzarik jaso urte natural bakoitzean behin baino gehiagotan.
- b) Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 euro/ha izango da, eta gehienez 6.000 euro/ha.
- c) Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren %20 kenduko zaio.

Prebentzio-neurritzat hartuko dira:

- a) Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, be-tiere mantentze-egoera onean badaude.
- b) Banakako babes-elementuak erabiltzea (Tubex edo antzekoak).

1.d) Orkatzek baratze-laboreetan eragindako kalteengatiko dirulaguntzak

Diruz lagunduko dira baratzeetan orkatzaren basa-populazioek eragindako kalteak, baldin eta baratze-espezie hostodunak eta fruituak edo babarrunak ekoizteko bara-tze-espezieak hazten badira.

1. Dirulaguntza jaso ahal izateko betekizun espezifikoak:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan inskribatuta dau-den nekazaritzako ustiategiak.
- b) Gutxienez 2.500 m²-ko azalerako baratze bat izatea; aire zabaleko baratzea eta/edo negutegia izan daitezke. Azaleraren araberrako muga hori ez zaie aplikatu-ko titularrak nagusiki nekazari kalifikazioa duen baratze-ustiategiei edo landa-re-mintegiei.

2. Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:

- a) Laguntzaren zenbatekoa, gehienez, V. eranskinean ezarritako baremoen %100 izan daiteke, kaltea jasan duen azaleraren arabera.
- b) Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 euro/ha izango da, eta gehienez 6.000 euro/ha.
- c) Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari eslei-tutako zenbatekoaren %20 kenduko zaio.

Prebentzio-neurritzat hartuko dira:

- a) Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, be-tiere mantentze-egoera onean badaude.

2.2. Ierroa: Basurdeek eragindako kalteengatiko dirulaguntzak

Basurde-populazioek larreetan, bazka-laboreetan, baratze-ustiatgietan eta mahas-tietan eragindako kalteak lagunduko dira.

a) Dirulaguntza jaso ahal izateko:

- 1. Nekazaritzako ustiatgiek Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Ustiatgien Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta Abeltzaintza Ustiatgien Erregistroan, bazka-laboreen eta larreen kasuan.
- 2. Nekazaritzako ustiatgiak produkzio-orientazioan oinarrituta eduki beharko dituen gutxieneko neurriak:
 - a) Larre eta belardietan kalteak jasaten dituzten ustiatgiek gutxienez 05.UTako neurria izan beharko dute, eta Abeltzaintzako Ustiatgien Erregistro Orokorrean alta emanda egon beharko dute.
 - b) Gutxienez 5 ha bazka-arto ekoizten dituzten abeltzaintzako ustiatgiak. Gainera, Abeltzaintzako Ustiatgien Erregistro Orokorrean alta emanda egon beharko dute.



- c) 2.500 m²-ko gutxieneko neurria duten baratze-ustategiak. Azaleraren arabera muga hori ez da aplikatuko baratze-ustategiaren titularrak NNP (nagusiki nekazari gisa diharduen pertsona) kalifikazioa badu.
 - d) Txakolina egiteko mahatsa ekoizten duten mahastien ustategiak gutxienez 1 ha-koak izan behar dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Mahastizaintza Erregistroan inskribatuta egon behar dute.
3. Landareetan eragindako kalteak landarea hiltzea eragin behar du, edo, hala badagokio, landarearen etorkizuna merkataritzarako bideraezina edo ez-ko-mertzial bihurtu.
- Larrean sortutako kaltetzat hartuko da larrea desagertu bada edo ezin bada aprobetxatu ez segarekin moztuta, ez aziendak berak hortzekin moztuta ere.
- b) Laguntzaren zenbatekoari dagokionez:
- 1. Dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez VI. eranskinean ezarritako baremoen %100 izan daiteke, kaltetuta geratu den landutako azaleraren arabera, eta, IV. eranskinean mahatsondo-sailei dagokienez dauden baremoen arabera
 - 2. Diruz lagundu daitekeen gutxieneko zenbatekoa 250 euro/ha izango da, eta gehienez 6.000 euro/ha.
 - 3. Hala ere, prebentzio-neurririk ez badago, neurri horiek ez dituen lursailari esleitutako zenbatekoaren %20 kenduko zaio.
- Nekazaritzako ustategien kasuan, larreen kasuan izan ezik, honako hauek hartuko dira prebentzio-neurriztat:
- a) Dekretu honen VII. eranskinean jasotako itxitura-sistemetako bat edukitzea, betiere mantentze-egoera onean badaude.
 - b) Artzain elektrikoa edukitzea eta funtzionala izatea.

5. oinarria. — Elkarreragingarritasuna

Bizkaiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Abeltzaintza Zerbitzuak, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoaren bidez eta azaldutako elkarreragingarritasun zerbitzuen bitartez, beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden laguntza horien administrazio izapideak egiteko eskatzen diren eskatzaileen datuei buruz, baldin eta eskatzaileek berariaz aurka egiten ez badute. Kasu horretan, eskatutako ziurtagiriak eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Abeltzaintza Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eska ditzake, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren 6.e) artikuluari lotuta.

Era berean, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak Foru-Dekretu honetan jasotako inguruabarrak egiaztatze beharrezkoak diren jarduketak egin ahal izango ditu, Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

6. oinarria. — Datu pertsonalen babesa

Interesdunak emandako datuak Foru-Dekretutik eratorritako prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; horren bidez, indargabetu egiten da 95/46/EE Zuzentaraua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Europako araudia egokitzen etaosatzen du) aurreikusitakoaren arabera.



Ukitutako pertsonak baimenik ematen ez badu, edo lehen adierazitako araudian aurreikusitako kasurik ematen ez bada, datuak ez zaizkie inola ere hirugarrenei lagako.

Administrazio publikoek datu pertsonalak adierazteko eskaintako edozein bide erabiliz egiten direnean eskabideak, organo hartzaileak, bere eskumenak erabiliz, datuen zehaztasuna egiaztatze beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak eskuratze-ko, zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakirik ez jasatekoa (barne harturik profilen sorrera), baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, emandako baimena edozein unetan baliogabetu ahal izango du. Halaber, eskubidea du erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzan, eta informazio hori zabaldu egin daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzional-eko datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

7. oinarria. — Araudi aplikagarria

Dekretu honetan aurreikusitako dirulaguntzak araudi aplikagarrian eta eskabideak ebazteko foru-aginduetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Modu osagarrian, arau hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen Araubide Juridiko Orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua; Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretua, Foru Administrazioak emandako Dirulaguntzen Araubide Juridiko Orokorra arautzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua aldatzen duena (Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartua), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzen prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida onartzen duena; Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; Ogasun eta Finantzako foru diputatuaren 1305/2015 Foru Agindua, ekainaren 18koa, dirulaguntzak eta dirulaguntza publikoak ematearen arloko gastua fiskalizatzeko prozedura onartzen duena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta hura garatzeko araudia; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa; 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoen eremuan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena; 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, bai eta aplikatu beharreko beste edozein araudi ere.

Halaber, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere aplikatuko da, bai subsidiarioki edo ordezkoko gisa aplikatzekoa den gainerako araudia ere.

II. KAPITULUA

XEDAPEN ESPEZIFIKOAK

8. oinarria. — Dirulaguntzak emateko prozedura

Laguntza hauek zuzeneko emakidaren araubidean emango dira Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) eta 26.2 artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

Foru-administrazioak ehiza-espezieen kudeaketan alde zuzeneko aurretik ezarritako kontrolak basurdearen eta orkatzen ekintzek nekazaritza- eta baso-ingurunean duten eraginari buruzko datuak ematen ditu. Horrela, Natura Ingurune eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak konpentsaziorako laguntza-mekanismo bat eratzen du, eraginkortasuna eta kalteak jasan dituzten herritarren kargak murriztea helburu duena.



Foru dekretu honen I. eta II. eranskinetan, dirulaguntzaren onuradunen behin-behineko zerrenda agertzen da, bai eta hura kalkulatzeko kontuan hartu diren datuak ere.

Proposatutako onuradunen artean, daturen bat egiaztatzeko badago, onuradunek hamar eguneko epea izango dute Bizkaiko Foru Aldundiak eskatutako dokumentazioa aurkezteko.

Zerrenda horrek Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren foru-agindua osatuko du, zeinaren bidez zuzenean ematen baitira dirulaguntzak.

Behin betiko ebazpena bakarra izango da eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Ebazpen horrek jakinarazpenaren ondorioak sortuko ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren arabera. Orobat, behin betiko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie onuradunei, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio horretan eskumena duen salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Alabaina, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa ere jar liteke, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru-diputatuari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

9 oinarria. Ebazpena. Prozedura izapidetzeko organo eskuduna

1. Foru-dekretu honetako espedienteak Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Abeltzaintza Zerbitzuak izapidetuko ditu. Zerbitzu hori izango da prozeduraren instrukzio-organoa, eta ofizioz egingo ditu ebazteko eskumena duen organoari ebazpen-proposamena formulatzeko behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak.

Ebazpen-proposamena egiteko, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Abeltzaintza Zerbitzuak kontuan hartu du kalteen jakinarazpenetan jasotako informazioa eta, hala badagokio, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko Baso Zerbitzuan, Nekazaritza Zerbitzuan eta Abeltzaintza Zerbitzuan eskuragarri dauden erregistro eta datu-baseetako informazioa. Horrez gain, dirulaguntzaren xedearekin lotuta beharrezkotzat jotzen dituzten kontrol- edo ikuskapen-lan guztiak egin ahal izango ditu.

Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak zuzenean emango ditu laguntzak foru-agindu bidez, Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide orokorrari buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.c) eta 26.2 artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

Kontabilitate-ondorioetarako, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak ebazpenaren behin-behineko foru-agindua eman ahalko du, non jasoko baita onuradun posibleen zerrenda bat.

Dirulaguntzak emateko kontabilitate-eragiketak egin eta gero, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak prozeduraren behin betiko ebazpena emango du.

Behin-behineko ebazpena behin betikoa izango da, baldin eta proposatutako onuradunek une oro eta deitutako laguntzak izapidetu eta kudeatu bitartean, Foru-Dekretu honetan ezarritako zerga-betebeharrak betetzen badituzte.

10. oinarria. — Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

1. Foru-dekretu honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo ente publiko zein pribatuko edo organismoak ematen dituen dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baldin eta gastu hautagarri beretarako gehieneko laguntza-intentsitatea errespetatzen bada.

Nolanahi ere, laguntza horiek bateragarriak izango dira Batzordearen de minimis laguntzei buruzko 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-eremuan (erregelamendu hori Batzordearen 2024ko abenduaren 10eko 2024/3118



(EB) Erregelamenduak aldatu zuen, kontuan hartuta ezin direla 50.000 eurotik gorakoak izan hiru ekitaldi fiskaletan.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, inola ere ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

2. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3. Aipatutako mugaren bat gaindituz gero, emandako edo eman beharreko dirulaguntzari soberakinari dagokion zenbatekoa kenduko zaio.

4. Onuradunek Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari jakinarazi beharko diote, jakin bezain laster eta, nolanahi ere, funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu dituztela, eta, hala eskatzen bada, egin duten itzulketa-gutunaren kopia aurkeztu beharko dute. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, dagokion itzulketa-prozedura hasteko.

11. oinarria. — Erakunde onuradunen betebeharrak

1. Foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradunek, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan jasotako betebeharrak ez ezik, honako hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, onuradunak hamar eguneko epean —dirulaguntza eman zaiola dioen jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera— berariaz eta idatziz edo horretara argi bideratutako ekintzak eginez uko egiten ez badio dirulaguntzari, dirulaguntza onartutzat joko da.
- b) Dirulaguntza eman den helburu zehatzerako eta emateko ebazpenean edo, hala badagokio, likidatzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera erabiltzea.
- c) Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari, Ogasun eta Finantza Sailari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea, beren eskumenak erabilita, Foru-Dekretu honen kargura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen duten informazioa.
- d) Berdintasunaren arloko betebeharrak:
 - d.1) Pertsona fisiko eta juridikoek emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzukidetasunean, bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
